


E U S K A D I



Eskualdeetako ESEPEak



Euskadiko Berreskuratze
eta Erresilientzia Programa
Programa Vasco de
Recuperación y Resiliencia
2021 • 2026





Aurkibidea

1. NEXT Generation EU & Euskadi NEXT	4
2. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (SEEP) hedapena	6
3. Lurraldeetako gobernuak, soluziorako bidea	8
4. Lurraldeko ESEPEa: pragmatismoa eta eraginkortasuna	10
5. Proposamenaren indar-faktoreak	14
1. Faktorea. Dagoeneko martxan dauden lurralde-ekimenak babesten, indartzen eta bultzatzen dira	14
2. Faktorea. Lurralde mailan dauden dirulaguntzetarako tresnei balioa ematen zaie	14
3. Faktorea. Euskadiko RIS3 estrategiak estatuko ESEPEen planteamenduan laguntzen du	14
4. Faktorea. Proposamenak berariaz jasotzen ditu Euskadiren eraldaketa-beharrak	17
• Bizitza luzerako, ongizaterako eta erresilientziarako euskal ESEPEa	17
• Banaketa Sare Adimendunen Euskal ESEPEa	17
• Itsas jatorriko energia berriztagarrien euskal ESEPEa	17
• Big Data, Cloud, Adimen Artifizial eta Zibersegurtasunaren Euskal ESEPEa	18
• Gaitasun zientifiko eta teknologikoko euskal ESEPEa	18
• Hiri Jasangarrien Euskal ESEPEa	19
• Klima-aldaketaren aurreko erresilientziaren, ekosistemen eta biodibertsitatearen euskal ESEPEa	19
• Euskadi Creativa euskal ESEPEa	19
• Ekoberrikuntzaren Euskal ESEPEa	20
• BASQUE MOBILITY euskal ESEPEa	20
5. Faktorea. Lurraldearen errealitatera, eta, bereziki, euskal enpresa-egituraren errealitatera egokitzen da	21





6. Bermatutako ibilbidea: euskal proposamenaren sendotasuna	22
Industriaren Garapenerako eta Nazioartekotzerako 2021-2024 Plana	22
Basque Industry 4.0 estrategia	24
2030eko Enpleguaren Euskal Estrategia eta 2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoa	24
Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2021- 2024 Plan Estrategikoa	24
Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa	24
Klima Aldaketaren aurkako Estrategia 2050 - Klima2050	24
Eraldaketa Digitalerako Estrategia Euskadi 2025	25
PCTI 2030	25
Estrategia IKUR	25
7. 2020-2023: Esperientzia frogatua	26



1. NEXT Generation EU & Euskadi NEXT

Eusko Jaurlaritzak beti ulertu izan du Next Generation EU ekimena inbertsio publikoaren aldeko apustuari heltzeko aukera dela, garapen ekonomiko eta sozialerako eta berotze globalaren aurkako borrokarako motor gisa.

Apustu hori ez da soilik inbertsio-bolumenaren arabera ikusi behar; aitzitik, maila anitzeko antolaketa- eta gobernantza-modu berriak ekarri behar ditu, EBk Next Generation EUren bidez aurrean izango dituen eraldaketa energetiko-ekologiko, digital eta sozialen konplexutasunari aurre egiteko.

Euskadin, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM), Next Generation EUren tresna nagusia, eraldaketa ekonomiko eta sozialerako palanka gisa ulertzen dugu, gure ustez Europak eskatzen duen gizartean aurrera egiteko baliagarria.

Duela hiru urte, zehazki, Eusko Jaurlaritzak Euskadi Next programa planteatu zuen mekanismo horretan sartutako Europako funtsak behar bezala erabiltzeko euskal erakundeen arteko ibilbide-orri gisa. Une hartan ulertu genuen, eta hala ulertzen jarraitzen dugu, erresilientzia eta hazkunde ekonomikoa Europak eskatutako trantsizio hirukoitzaren eskutik etorriko direla. Next Generation EU ekimena, hain zuzen ere, mundu hobea utzi behar diegun hurrengo belaunaldien oparotasunerako eta aurrerapenerako oinarriak ezartzeko dago pentsatuta, eta Euskadi % 100ean dator bat planteamendu horrekin.

2021eko maiatzean, Eusko Jaurlaritzak, ezinbestean beti elementu dinamiko eta malgu gisa planteatu dugun programa horren bertsio berria aurkeztu zuen. Errealitateak fikzioa gainditzen du askotan, eta zoritxarrez, arlo sanitarioan, ekonomikoan eta politikoan nazioarte mailan bereziki gorabeheratsuak izaten ari diren urteen lekuko izaten ari gara.

Europako Batzordeak 2023ko urriaren 2an onartu eta EBko Finantza Ministroen Kontseiluak (ECOFIN) bi aste geroago berretsi zuen Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (SEEP) Espainiako eranskina da Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bigarren fasea hedatzeko dokumentua.


Eranskin horren bidez mobilizatzen dira Next Generation EU funtsetatik Espainiari esleitutako baliabide guztiak, herrialdearen berrindustrializazio estrategikoa sendotzeko asmoz. Eranskin horrek 10.000 M€-tik gorako transferentzia gehigarriak aurreikusten ditu (7.700 M€ Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik eta 2.600 M€ REPowerEU programatik), eta 83.000 M€-ra arte mailegutan. Horrela, Espainiako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak **162.700 milioi euro** inguru mobilizatu ahal izango ditu transferentzietan eta mailegutan 2021-2026 aldian.

Dirulaguntzak **gauzatzeko epea 2026ko abenduan** amaitzen da; beraz, erdia igaro da, eta ibilbide luzea geratzen zaie erabat gauzatzeko. Erabili ez diren funtsak itzuli eta galdu egingo dira.

83.000 milioi euroko maileguei dagokienez, 2023tik aurrera inbertsio publikoaren eta pribatuaren mailei eutsiko zaiela bermatzea dute helburu, gaur egun EBn eztabaidatzen ari den 2024rako arau fiskalen itzulera aurreikusten baita. Oraingoz ez dira aldaketa posibleak ezagutzen.

Funts horiek tase eta epeen aldeko finantza-baldintzak ahalbidetzen dituzte, eragile publiko zein pribatuentzako zorpetzea garestitu egin den gogortze-ingurunean. Mailegu horiek, batetik, **Susperraldi eta Eraldaketa Ekonomikorako Proiektu Estrategikoetan (ESEPE)** sartuko diren ekimenak finantzatzeko erabiliko dira, eta,





bestetik, KOIk, Europako Inbertsio Bankuak eta beste erakunde publiko batzuek kudeatutako 12 funts sortzeko. Eusko Jaurlaritzak **Finantzen Euskal Institutoa (FEI)** proposatu du Autonomia Erkidegoen Jasangarritasun Funtsaren kudeaketa bitartekari gisa aritzeko. Funts horrek 20.000 M€-raino ditu inbertsio jasangarriko proiektuak finantzatzeko. Inbertsio horiek Autonomia-erkidego guztietako enpresa pribatu eta publikoek egin ahal izango dituzte sektore hauetan: etxebizitza sozial eta eskuragarria eta hiri-berroneratzea; garraio jasangarria; industria-lehiakortasuna eta ETEena; ikerketa, garapena, berrikuntza; turismo jasangarria; zainketen ekonomia eta uren eta hondakinen kudeaketa eta energia-trantsizioa.

Eusko Jaurlaritzaren eskaera nagusia da, azkenik, lurralde-mailako eraldaketa ekonomiko eta sozialerako proiektuak egituratu ahal izatea, espezializazio adimenduneko gure estrategian eta herrialdeko estrategia nagusien hedapenean

sakonduz, hainbat arlotan, hala nola osasunean, enplegu kualifikatuaren sorreran, kolektibo zaurgarrienen arretan eta biodibertsitatearen eta ingurune naturalaren hobekuntzan, besteak beste. Azken batean, duela hiru urte lurraldeetako ESEPE gisa definitu genuena antolatzeke balio dezala.

Gaur, hiru urte geroago, Eusko Jaurlaritzak, CONFEBASK patronalarekin eta haren hiru lurralde-erakundeekin (CEBEK, SEA eta ADEGI) lankidetzan, beste aurrerapauso bat eman du, modu proaktibo, kolaboratibo eta eraikitzailean, Europak inbertsioaren alde egin duen apustu berri hori modu eraldatzailean gauzatu dadin.

Dirulaguntzak urteko BPGaren % 0,93 dira batez beste, eta horri maileguak gehitu behar zaizkio. Guztira, 2021-2026 aldian Espainiak jaso ditzakeen SEM funtsek Espainiako urteko BPGaren % 1,9 osatzen duten inbertsioak batzen dituzte ezarpenaren aldi osoan.

TAULA. Next Generation funtsen esleipena Espainiako Estatuari.

	DIRULAGUNTZAK	MAILEGUAK	GUZTIRA
HASIERAKO SEEP	69.500		69.500 M
SEM hasierako esleipena	69.500		
SEEP ERANSKINA	10.300	83.000	93.300
SEM funts gehigarriak	7.700	83.000	90.700
EU Repower	2.600		2.600
ESPAINIA GUZTIRA (HASIERAKO SEEP + SEEP ERANSKINA)	79.800	83.000	162.800





2.

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (SEEP) hedapena

Espainiako Gobernua eta, bereziki, bere ministerioak arduratzen dira SEEPn definitutako neurri, erreforma eta inbertsio multzoaren ezarpena kudeatzeaz.

Inbertsioetako batzuen lurralde-hedapenerako, ministerioek Autonomia-erkidegoei agintzen diete inbertsio horiek egikaritzea. Agindu hori Sektoreko Konferentzien bidez egiten da, batez ere. Konferentzia horietan, ministerioek erabakitzen dute zer funts banatu behar zaizkion Autonomia-erkidego bakoitzari, haiek ezarritako adierazle objektiboetan, izango dituzten jomugetan eta bete beharreko helburuetan oinarrituta.

2023ko abuztuaren 31ko datuekin, sektore-konferentziaren edo zuzeneko emakidaren bidez

Autonomia-erkidegoei banatutako 24.163 milioi euroetatik, Euskadiri 1.135 milioi euro esleitu zaizkio guztira, hau da, esleitutako funts guztien % 4,70a.

Horrez gain, EAEko eragile publikoek eta pribatuek 672 milioi euro jaso dituzte, Estatuak zuzenean kudeatutako guztiaren % 5,70a. Horietatik, Euskadiko udalek 300 milioi euro jaso dituzte.

Guztira, Euskadik 1.807 milioi euro jaso ditu, eta horiek erantzukizunez eta eraginkortasunez kudeatzen ari da ezarritako helburuak betetzeko. Kopuru horretatik, 1.135 milioi euro (% 62,8) Eusko Jaurlaritzak kudeatzen ditu, eta 672 milioi euro (% 37,2) Estatuak kudeatzen ditu zuzenean.



TAULA. SEM funtsen esleipena Euskadin. 2023ko abuztuaren 31ko datuak.

		AUTONOMIA ERKID.	GUZTIRA EUSKADI	EUSKADI/GUZTIRA
	OSAGAIA	BANATUTA	BANATUTA	%
01	MUGIKORTASUN JASANGARRI, SEGURU ETA KONEKTATUAREN TALKA-PLANA HIRIGUNEETAN ETA METROPOLI-INGURUNEETAN	2.179,80	98,48	4,5
02	ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO ETA HIRI-BERRONERATZEKO PLANA	4.975,45	282,80	5,7
03	NEKAZARITZAKO ELIKAGAI ETA ARRANTZA SISTEMAREN INGURUMEN-ERALDAKETA ETA ERALDAKETA DIGITALA	346,13	2,04	0,6
04	EKOSISTEMEN ETA HAIEN BIODIBERTSITATEAREN KONTSERBATIOA ETA LEHENGORATZEA	856,00	14,02	1,6
05	ITSASERTZEKO EREMUAREN ETA UR-BALIABIDEEN BABESA	394,50	13,91	3,5
06	MUGIKORTASUN JASANGARRIA, SEGURUA ETA KONEKTATUA	220,00	10,29	4,7
07	ENERGIA BERRIZTAGARRIEN HEDAPENA ETA INTEGRATZIOA	1.947,80	88,99	4,6
08	AZPIEGITURA ELEKTRIKOAK, SARE ADIMENDUNEN SUSTAPENA ETA MALGUTASUNAREN ETA BILTEGIRATZEAREN HEDAPENA	228,95	15,86	6,9
10	TRANTSIZIO ZUZENERAKO ESTRATEGIA	150,00	0,00	0,0
11	ADMINISTRATIO. PUBLIKOEN MODERNIZATIOA	841,72	45,38	5,4
12	ESPAINIAKO INDUSTRIA POLITIKA 2030	615,44	20,21	3,3
13	ETEari BULTZADA	100,00	4,15	4,2
14	TURISMO SEKTOREAREN MODERNIZATIOA ETA LEHIAKORTASUN PLANA	2.302,04	86,91	3,8
15	KONEKTIBITATE DIGITALA, ZIBERSEGURTASUNAREN BULTZADA ETA 5G-AREN HEDAPENA	323,25	13,98	4,3
16	ADIMEN ARTIFIZIALAREN ESTRATEGIA NAZIONALA	124,49	11,78	9,5
17	ERAKUNDEEN ERREFORMA ETA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SISTEMA NAZIONALAREN GAITASUNEN INDARTZEA	264,17	18,88	7,1
18	OSASUN SISTEMA NAZIONALAREN GAITASUNEN BERRIZTAPENA ETA HANDITZEA	862,87	34,62	4,0
19	GAITASUN DIGITALEN PLAN NAZIONALA (DIGITAL SKILLS)	1.763,67	70,58	4,0
20	LANBIDE HEZIKETA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA	1.260,37	59,63	4,7
21	HEZKUNTZA-SISTEMAREN MODERNIZATIOA ETA DIGITALIZATIOA, 0 ETA 3 URTE BITARTEKO HEZKUNTZA GOIZTIARRA BARNE	1.104,32	31,37	2,8
22	ZAINKETA EKONOMIARAKO ETA GIZARTERATZE-POLITIKAK INDARTZEKO TALKA-PLANA	1.763,85	122,64	7,0
23	POLITIKA PUBLIKO BERRIAK LAN-MERKATU DINAMIKO, ERRESILIENTE ETA INKLUSIBORAKO	1.271,26	78,37	6,2
24	KULTUR INDUSTRIAREN ERREBALORIZATIOA	148,51	6,96	4,7
25	ESPAINIA EUROPAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN HUB-A (SPAIN AVS HUB)	17,00	1,15	6,8
26	KIROL SEKTOREA SUSTATZEKO PLANA	101,90	2,16	2,1
OSAGIAK GUZTIRA		24.163,50	1.135,19	4,7
ESTATUAK ZUZENEAN KUDEATUTAKO FUNTSEN ESLEIPENA ERAGILE PUBLIKO ETA PRIBATUEI (EAAA)		11.789	672	5,7
ESLEITUTAKO SEM FUNTSAK GUZTIRA (EAAA) (2023ko abuztua)		35.952,50	1.807,19	5,0



3.

Lurraldeetako gobernuak, soluziorako bidea

Esleitutako SEM funtsak euskal gizarte- eta produkzio-sarera behin betiko iristeko oztopo nagusia eraldaketa-proiektu estrategikoetan dago. ESEPE izenekoak dira, eta horien kudeaketa Estatuko Administrazio Zentralaren esku dago.

Estatuko ESEPEen operatibak ez die erantzuten Euskadiko gizarte- eta produkzio-sarearen beharrei. Susperraldi eta Eraldaketa Ekonomikorako Proiektu Estrategikoak (ESEPE) dira Gobernu Zentralak Estatuko industria-politika berriaren ardatz gisa aukeratutako figurak.

Gaur egun, 12 ESEPE aukeratu dira (taulan aipatzen direnak), eta zifrek aurretik dagoen erronkaren garrantzia islatzen dute: eraldaketa-proiektu estrategiko horietarako dirulaguntzetan **24.496,2 milioi euro** daude aurreikusita, eta oraindik hiru urtetan banatu eta **gauzatu beharreko 18.141,63 milioi euro daude**.

Ukaezina da gobernantza-formula aldatzen ez bada funtsak gauzatu gabe geratzeko arriskua dagoela, eta hori porrot eta aukera-galera izugarria litzateke.

Lankidetzaren eraginkorrerako unea da. Horrek ondorio positibo handiak izango ditu euskal ekonomia-sarean, hori izango baita Europako baliabide horiek galtzearen kaltetu nagusia.

Euskadik, berriz ere, Autonomia-erkidegoei protagonismoa emateko eta lurralde-lehentasan bereiziaz ezartzeko gobernantza-eredua proposatzen du, bakoitzaren egoera ekonomikoa eta politika espezifikoak kontuan hartuta.

Kudeaketarako alternatiba hori enpresei eta ekoizpen-sareari zuzendutako Europako funtsak

bideratzeko Administrazio zentralari ematen zaion laguntza gisa planteatzen da, eta beste Autonomia-erkidego eta beste eragile publiko eta pribatu batzuekin baloratutako eta partekatutako alternatiba da.

Funts horien diseinuan partekatutako gobernantzaren erromantizismoa atzean uzteko eta neurri pragmatikoetan zentratzeko unea da, euskal enpresek Europako SEM baliabideak benetan eskuratu ahal izateko aukerarik eta eskubiderik gal ez dezaten.



TAULA. Suspertze, eraldaketa eta erresilientzia proiektu estrategikoen taula. Gauzatze-maila 2023ko abuztuaren 31n.

EKONOMIA SUSPERTZEKO ETA ERALDATZEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOAK (ESEPE)	ESTATUA						EUSKADI	
	AURREIKUSITAKO AURREKONTUA (M€)	TRANSFERENTZIAK 1. FASEA PLANA	ERANSKINA		BANATUTAKO AURREKONTUA (M€)	ESLEITUTAKO A (AURREIKUSITAKOAREN AURREAN BANATUTAKO %)	BANATUTAKO AURREKONTUA EUSKADI (M€)	ESLEITUTAKO A EUSKADI (EUSKADIN BANATUTAKOAREN % ESTATUAN BANATUTAKOAREKIKO)
			TRANSFERENTZIA GEHIGARRIAK	MAILEGUAK				
AEROTESPAZIALA	930,7	590,7	100	240	244,7	26,30%	31,3	12,8
NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KATEA	1.357	747	150	460	120,9	8,9 %	6,82	5,60%
URAREN ZIKLOAREN DIGITALIZAZIOA	3.485	430	1.250	1.805	174,5	5%	9	5,2
MIKROELEKTRONIKA ETA ERDIEROALEAK	12.250	275	1.225	10.750	0	0%	0	0%
EKONOMIA ZIRKULARRA	792	192	600	0	0	0%	0	0%
GIZARTE ETA ZAINKETA EKONOMIA	1.766	766	1.000	0	289,2	16,40%	17,7	6,10%
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK, HIDROGENO BERRIZTAGARRIA ETA BILTEGIRATZEA	10.797	6.600	4.197		2.734,70	25,30%	159,7	5,80%
HIZKUNTZAREN EKONOMIA BERRIA	724,5	323,5	0	401	22,5	3,10%	5	22,20%
ONTZIGINTZA-INDUSTRIA	150	150	0	0	0	0%	0	0%
ABANGOARDIAKO OSASUNA	1.640	810	500	330	889	54,20%	30,12	3,40%
IBILGAILU ELEKTRIKOA ETA KONEKTATUA	4.120	2.870	250	1.000	2.234,50	54,20%	316,3	14,20%
INDUSTRIAREN DESKARBONIZAZIOA	3.170	450	1.020	1.700	0	0%	0	0%
GUZTIRA	41.182	14.205	10.292	16.686	6.710	16%	575,94	8,60%



4.

Lurraldeko ESEPEa: pragmatismoa eta eraginkortasuna

Eusko Jaurlaritzak, CONFEBASKein batera, uste du proposamen proaktiboak mahai gainean jartzeko unea iritsi dela, Europako funtsak osorik eta ahalik eta azkarren lur har dezaten egitura sozioekonomikoan.

Erreklamazio horren arrazoiak, alde batetik, kapilaritate handiagoaren beharrari erantzuten diote, eta, bestetik, funtsak erabiltzeko orientazio estrategikoari, funts horiek Autonomia-erkidegoek gure eskumenen esparruan eskura ditugun estrategiak gauzatzeko erabil daitezten. Izan ere, orain arte baliabide propioekin bakarrik gauza daitezke, zuzkidura propioak SEEPen baliabideekin handitzeko aukerarik gabe, estrategia horiek SEEPek bere osagaien bidez aurreikusten dituen eraldaketa-helburuekin bat datozen arren.

Eraikitzeko asmoz, gure proposamena argia eta zehatza da.

Beharrezkoa eta premiazkoa da behin eta berriro eskatzen diren "lurraldeetako ESEPEak" aktibatzea eta abian jartzea, Autonomia-erkidegoak arduratu daitezten oraindik eskuragarri dauden funtsen zati handi bat zuzenean kudeatzeaz, enpresei eraldaketa-prozesuetan laguntzeko.

Euskadiren kasuan, proposamen hau babesten duen lehen arrazoia estrategikoa da; izan ere, garapen ekonomikorako politika sendoa dugu hainbat sektoretan, eta eskura ditugun funtsak politika hori sustatzeko eta gure enpresa-sarearen onurarako erabiltzea nahi dugu.

Lurraldeetako ESEPEen gaikuntzari esker, Eusko Jaurlaritzak era aktiboan egingo luke bat SEM funtsen ezarpenarekin -dirulaguntzak eta maileguak-, eta baliabide gehigarriak izango lituzke enpresak sustatzeko dagoeneko martxan dauden politikak bizkortzeko eta horiei anbizio handiagoa emateko.

Proposamenaren bigarren arrazoia operatiboa da erabat. Funtsak azkarrago banatuko dira Autonomia-erkidegoen administrazio-ahalmena ahalik eta gehien aprobetxatzen bada. Autonomia-erkidegoek esperientzia dute kontratuak eta dirulaguntza programak kudeatzen, eta beren produkzio-sarearen beharrak ezagutzen dituzte. Gainera, aritmetika kontu hutsagatik, 17 "leihatila" berri modu egokian baliatuko lirateke funtsak bideratzeko.

Eusko Jaurlaritzak autogobernurako gaitasun, baliabide, esperientzia eta ezagutza guztia jartzen du, funtsen ezarpenak euskal pertsona, enpresa eta erakundeetan eragin positiborik handiena izan dezan.





Azken batean, kontua dibidendu hirukoitza aprobetxatzea da. Horren onuradun nagusia Europako finantzaketa lortzea errazago izango duten enpresak izango dira, baina baita Administrazio zentrala eta Autonomia-erkidegoak ere, gure helburua betetzen laguntzen baitigu: Europak gure esku jarri dituen enpresa-eraldaketarako funtsak eraginkortasunez gauzatzea.


Modu praktikoan, espezializazio adimenduneko estrategia, RIS3 izenekoa, SEM funts europarrak lor ditzaketen proiektuak definitzeko palanka gisa erabiltzea proposatzen da.

Izan ere, estrategia horiek egitura-funtsak lortzeko baldintza lagungarri bihurtu ziren eta EBko lurralde-politikaren parte zirenez lurralde mailan hedatu ziren, ez estatu mailan. Euskadik azkar bereganatu zuen estrategia hori, batez ere ZTBP 2020ren bidez, eta berriki berritu du ZTBP 2030ekin.

Grafikoan jasotzen den espezializazio adimenduneko Euskadiko RIS3 estrategia guztiz lerrokatuta dago SEM funtsen bidez bultzatu nahi den eraldaketa hirukoitzarekin, energetiko-ekologikoarekin, digitalarekin eta sozialarekin.



GRAFIKOA. RIS3 estrategia berrikusia PCTI 2030en esparruan.



EUSKADI DIGITALA	EUSKADI BERDEA	EUSKADI INKLUSIBOA
TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO-DIGITALA	TRANTSIZIO ENERGIAREN-KLIMARENA	TRANTSIZIO SOZIALA ETA SANITARIOA
Digitalizazioa	Klima-neutraltasuna	Osasun Sistema eta Arrisku Pandemikoak
Adimen artifiziala eta Big Data	Energia-sistemaren deskarbonizazioa	Demografia eta zahartze osasungarria
Herritarren zerbitzura dagoen teknologia	Mugikortasun iraunkorra eta adimentsua	Migrazioa
Automatizazio	Bidezko trantsizio energetikoa	Berdintasuna
Zibersegurtasun	<i>From farm to fork</i>	Zainketa-eredu berriak
Bidezko ekonomia digital lehiakorra sustatzea	Baliabideen eta energiaren erabilera eraginkorra (ekonomia zirkulara)	Gizarte- eta lurralde-kohesioa



Praktikan, lurralde mailako ESEPEak gaitzeko eta bultzatzeko eskema hau proposatzen da:

- Gauzatu gabe (oraindik banatu gabe) dauden Estatuko ESEPE funtsen % 60 Autonomia-erkidegoetara bideratzea. Guztira, 11.792,57 M €-ko dirulaguntzak.
- Eusko Jaurlaritza funts horien % 8,88 kudeatzeaz arduratzea, hau da, INEren datuen arabera bere industriaren balio erantsi gordinak Estatu osoarekiko duen pisua bere gain hartzea. Guztira **1.047,18 M €**.

Dirulaguntzen funtsen kudeaketan parte hartzeaz gain, Euskadik, **Finantzen Euskal Institutuaren (FEI)** bidez, era aktiboan hartu nahi du parte **Autonomia-erkidegoaren Jasangarritasunerako Funtsaren kudeaketan**. Funts horrek 20.000 €-rainoko zuzkidura du, eta proiektu pribatu, publiko eta publiko-pribatuak finantzatzeko erabiliko da, hainbat arlotan: etxebizitza sozial eta eskuragarria eta hiri-berroneratzea; garraio jasangarria; industria-lehiakortasuna eta ETEena; ikerketa, garapena, berrikuntza; turismo jasangarria; zainketen ekonomia

eta uren eta hondakinen kudeaketa eta energia-trantsizioa. Europako Inbertsio Bankuak (EIB) kudeatuko du funtsa.

Horretarako, FEIk EAeko enpresa txiki eta ertainentzako finantzaketa bideratzen bitartekari lana egin ahal izatea eta era aktiboan parte hartu ahal izatea eskatzen da. Hori posible izan dadin, FEIren, EIBren eta Estatuko Administrazio Orokorraren artean beharrezkoak diren akordioak sinatzea eskatzen da, harreman horren baldintzak ezartzeko.

FEI dagoeneko lanean ari da EIBrekin enpresentzako beste finantzaketa-ekimen batzuetan, eta, horrela, bere eta bera buru den finantza-erakundearen sarearen potentziala baliatuko lirake, Jasangarritasun Funts Autonomikoari (FRA) kapilaritatea emateko eta euskal ETEetara hobeto iristeko.

Horrek aukera berriak irekiko lituzke FRAREN finantza-tresnak Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen enpresa-, industria- eta I+G+B sustapeneko funtsei batzeko, eta, batzuetan, lurralde mailako ESEPEen zuzkidura gehigarriarekin handituko lirake.

EUSKAL EHUN SOZIOEKONOMIKOA ERALDATU ETA
ERRESILIENTZIARA BIDERATUTAKO EUSKO JAURLARITZAK
KUDEATU BEHARREKO SEM FUNTSAK

1.047,18 M€



5.

Proposamenaren indar-faktoreak

1. FAKTOREA

Dagoeneko martxan dauden lurralde-ekimenak babesten, indartzen eta bultzatzen dira

Funtsek lurraldeko politikak indartzeko balioko dute. Euskadiren kasuan, funtsak enpresak sustatzeko euskal politikaren katalizatzaile izango dira, eta euskal produkzio-sarera bideratuko dira: zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal sistemako erakundeak -unibertsitateak, zentro teknologikoak eta abar-; euskal erakunde publikoak eta pribatuak; hirugarren sektoreko erakundeak; enpresa-elkarteak eta sindikatuak, Euskadi Next Programan eta Espezializazio Adimenduneko Euskadiko RIS3 Estrategian esleitutako lehentasunetan oinarrituta.

Horrela, kapilaritateak jarduera-sektore askotara iristea bermatuko du: industriara, sormen-sektorera, teknologiara, terapia aurreratueta, eraikuntzara, hirugarren sektorera, lehen sektorera, zerbitzuetara, etab.

2. Faktorea

Lurralde mailan dauden dirulaguntzetarako tresnei balioa ematen zaie

Helburua lurralde-mailan lehiakortasuna eta gizarte- eta produkzio-sarearen erresilientzia sustatzeko tresnak ahalik eta gehien aprobetxatzea da, planteamendu eta tresna juridiko berriei aurre egin behar izateak eragileei dakarkien nahasmena saihestuz.

Euskadin, Eusko Jaurlaritzak funtsak hedatzeko eta baliabide horiek Euskadiko enpresa handietara, ETEetara eta mikroETEetara zuzenean iristeko dituen tresnak erabiliko lirateke.

Azken batean, Eusko Jaurlaritza arduratuko litzateke tresnak hautatzeaz, eta Europako esparruaren barruan hautagarriak izatea bermatuko luke, berariaz Euskadikoak diren ekintza-eremuei lekua eginez. Logikoa denez, hautatutako tresnek barne hartuko litzukete SEMen Europako erregelamenduak eskatzen dituen zeharkako betekizunak: iruzurraren aurkako kontrola eta interes-gatazkarik eza, eta ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragitea.



3. Faktorea

Euskadiko RIS3 estrategiak estatuko ESEPEen planteamenduan laguntzen du

Euskadiko RIS3ak industria adimendunean duen espezializazioak zenbait arloko ESEPEei laguntzen die: Aeroespaziala, Ibilgailu elektrikoa eta konektatua, Mikroelektronika, Ontzigitza, Deskarbonizazioa, Ekonomia zirkularra eta Nekazaritzako elikagaiak. Era berean, zeharkako sektoreek, hala nola makina-erremintarenak edo doitasunezko manufakturarenak, zeregin handia dute euskal industrian. Azken bi eremu horiek garrantzi berezia dute CONFEBASKentzat.

- Euskadiko RIS3k energia garbiagoetan duen espezializazioak Energia Berriztagarrien ESEPEari laguntzen dio. Era berean, energiaren balio-kateko enpresak ere teknologia digital aurreratuak -industria adimenduna- txertatzeaz baliatu behar diren sektoreak dira. Euskal industriaren deskarbonizazioari dagokionez, Hidrogenoaren Euskal Korridorea aipatu behar da. Euskal industriaren isurketa globalen % 65 gaintitzen duten bost industria: Finketa, Siderurgia, Galdaketa, Zementua eta Orea eta Papera. "Basque Net Zero Industrial Super Clusterrak" proiektuak eta





ekintzak bultzatuko ditu World Economic Forumak definitutako lau garapen-arloetan: Energia-Eraginkortasuna, Elektrifikazio Berriztagarria, Hidrogenoa eta CO2aren Harrapaketa.

- Euskadik Osasun pertsonalizatuan duen espezializazioak Abangoardiako Osasuneko ESEPEari laguntzen dio.
- Euskadiko RIS3k Elikadura osasungarrian duen espezializazioak Nekazaritzako elikagaien katearen ESEPEari laguntzen dio.
- Euskadik Ekoberrikuntzan duen espezializazioak Ekonomia Zirkularreko ESEPEari laguntzen dio. Esparru horretan, eraikuntzako hondakinak edo lurzoru kutsatuak suspertzeari lotutako hainbat dimentsiotako proiektuak daude Euskadin, eta horiek erabil litezke.
- Euskadik hiri jasangarrietan duen espezializazioak Gizarte Ekonomiaren eta Zainketen ESEPEan – Euskal Erronka Demografikoaren estrategiarekin erabat lerrokatutako esparrua – eta uraren zikloaren digitalizazioaren ESEPEan laguntzen du. Zeharkako izaera dutenez, tresnen aplikazio-eremu ia guztiek dute elkarrekotasuna hirietako bizikaltatea hobetzeko aplikatzen diren teknologietan. Atal honetan sar daitezke, halaber, Euskadiko hirugarren sektorean dauden proiektu asko – GKEak, elkarteak, fundazioak eta abar–.
- Euskadi Creativako euskal espezializazioa bat dator Hizkuntzaren Ekonomiako ESEPEarekin, baina askoz harago doa, eta literaturako arteen, musikaren, eszenaren eta ikus-entzunezkoen diseinuarekin, sormenarekin eta ekonomiarekin erlazionatutako sektoreetan aberastasuna sortzea du helburu.



4. Faktorea

Proposamenak berriaz jasotzen ditu Euskadiren eraldaketa-beharrak

Jarraian, EAEko lurralde mailako ESEPEen aplikazio-eremuak deskribatzen dira, Euskadi Next Programan jasota geratu ziren bezala.

Bizitza luzerako, ongizaterako eta erresilientziarako euskal ESEPEa

Pertsonen osasunaren eta zainketaren osagaiaren parte da, eta pertsonak zaintzeko ereduaren jasangarritasun sozial eta ekonomiko bermatzeko ekimen eraldatzaileak barne hartuko lituzke, biztanleak gehiago zahartuko diren eta bizitza gehiago luzatuko den testuinguru demografikoan. Horretarako, politikan sakoneko eraldaketa sustatzen da, eragina izanik genero-ikuspegian, arreta eta zainketa eredu berrietan, sistemetan, zerbitzuetan, produktuetan eta eragileen arteko lankidetzan.

Finantzatutako inbertsio-ekimenek gizarte-berrikuntzako proiektu integrala osatuko lukete, lankidetzan publiko-publikoarekin, publiko-pribatuarekin (enpresak eta hirugarren sektorea) eta ezagutza-zentroekin. Berrikuntza-unitate gisa jardungo dute zahartze osasungarri eta aktiboan, autonomia pertsonalean eta abarretan.

Planteamenduak apustu kualitatibo eta kuantitatibo argia egin nahi du zainketen eremuan eraldaketa –soziala, ekonomikoa, digitala– bultzatzeko, herrialde mailako estrategia integralaren esparruan zainketa sozialen eta sanitarioen arteko funtsezko lotura ez hausteko.

Banaketa Sare Adimendunen Euskal ESEPEa

Digitalizazio- eta berrikuntza-osagaiaren parte da, eta “ENERGIBASQUE” euskal estrategia teknologikoan ditu sustraiak. Estrategia horrek zazpi teknologia lehenesten ditu, Euskadiko industria-, teknologia- eta ikerketa-sarearen indarguneak kontuan hartuta.

Energia elektrikoaren garraioaren eta banaketaren esparruan, “sare adimendunak edo smart grid izenekoak”, aukeratu dira, Euskadiko sektore elektrikoa munduko erreferente gisa kokatzeko.

Beste utilite batzuen (gasa, ura, etab.) banaketaren esparruan, sektore horien eta haien balio-kateen lehiakortasuna garatzen jarraitu nahi da, bereziki, euskal enpresa-sistemaren ezkutuko txapeldunak izenez ezagutzen diren nazioarteko enpresa liderren lehiakortasuna.

Itsas jatorriko energia berriztagarrien euskal ESEPEa

ENERGIBASQUE strategiaren beste apustu bat da. ESEPE hori energia berriztagarriak sortzeko osagaiaren barruan sartzen da. Euskadi lurralde liderra da itsas energiaren garapenean, industria-sarea eta intentsitate teknologikoa, euskal kostaldea horrelako energiak sortzeko gailuak garatzeko eta probatzeko kokaleku ezin hobea bilakatzen duten baliabideen presentziarekin konbinatzen dituelako.

Gaur egun, balio-kateko funtsezko jarduera guztietan teknologia- eta enpresa-eragile zientifikoak, eta itsasoko energiaren garapenean 50 enpresa baino gehiago dituen munduko lurralde bakanetakoa da Euskadi. ESEPEak inbertsioak ezartzeko eta horrelako energiak merkataritzan garatzeko eta ezartzeko bidean aurrera egiteko balioko du.



Big Data, Cloud, Adimen Artifizial eta Zibersegurtasunaren euskal ESEPEa

Digitalizazioaren eta berrikuntzaren osagaiaren parte da, eta teknologia digitalek lehiakortasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko eskaintzen dituzten aukeren aprobetxamendua maximizatzea du helburu.

ESEPEak hauen alde egiten du apustu:

Pertsonak beharrezko gaitasun digitzalek hornitzea, gizartearen barruan erabateko jarduna izan dezaten; merkatu digital globalizatuan dauden enpresak, industria adimendunaren garapenean aurrera egiten dutenak eta Euskadiko Espezializazio Adimenduneko RIS3 Estrategiak zehaztutako sektoreetara bideratuta daudenak, horien guztien oinarri diren garapen teknologiko berriek (Big Data, 4.0 industria, Adimen Artifiziala, IKTak...) eskaintzen duten potentzialaren bidez, bai eta teknologia horiek ahalbidetzen dituzten negozio-eredu berrien garapenean bidez ere.

Enpresei teknologia digital aurreratuenak erabiltzen laguntzea, haien lehiakortasuna hobetzeko eta teknologia horien aurrerapen azkarrarekin agertzen ari diren aukera zientifiko, teknologiko eta enpresarialak aprobetxatu ahal izateko beharrezko baldintzak ezartzeko.

Teknologia digitalak eta zerbitzu aurreratuak bultzatzea, Administrazioak bere eginkizunak ingurune eskuragarriagoan eta gardenagoan bete ditzan, herritarren parte-hartzea eta zerbitzu publiko aurreratu eta kalitatezkoak ematea bultzatuz.

Azpiegitura teknologikoak ezarritako lurralde adimenduna eta kohesionatua egituratzea, hiriguneetan eta landa-eremuetan balio erantsi handiko zerbitzuak garatu ahal izateko, lurraldean kohesio handiagoa ziurtatuz.

Erronka horretarako erantzunak eskaintzen dituzten proiektuek berrikuntza zientifikoan eta teknologikoan aurrera egitea, laugarren industria-iraultzari erantzutea eta enpresaren eraldaketa digitala bultzatzea dute helburu, digitalizazioaren dimentsio soziala ahaztu gabe, gizartean arrakala digitala murrizteko.

Gaitasun Zientifiko eta Teknologikoko euskal ESEPEa

Digitalizazio- eta berrikuntza-osagaiaren parte da, eta oinarrizko zientzia, zientzia aplikatua eta garapen teknologikoa bultzatuko dituen eskaintza zientifiko teknologikoaren garapenean aurrera egiten jarraitzeko beharrari erantzuten dio.

ESEPEak zientziaren eta teknologiaren aldeko apustuak dakarren potentzialari balioa eman nahi dio, ekonomian eta gizartean spillover-ak sortzeko iturria baita, eta hedapenaren trazabilitate linealari jarraitzen zaionean horiek ezin dira beti ikusi. Zientziarik ezaren eta teknologiarik ezaren kostua gero eta handiagoa da, eta, alde horretatik, beharrezkoa da horien garapena bultzatzen jarraitzea. Bereziki, eraldaketa energetikoarekin, digitalarekin eta sozialarekin erlazioan dutako funtsezko ezagutzei eta teknologiei dagozkienak.

ESEPEaren bidez, zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal ekosistema bultzatu eta indartu nahi da. Ekosistema horren bultzada enpresa-sarearen lehiakortasunaren eta herritarren bizi-kalitatea hobetzearen oinarri bihurtu behar da.



Hiri Jasangarrien euskal ESEPEa

Hiri-habitataren osagaiaren parte da. Euskadik duen esperientziak, egoera zaurgarrian dauden auzoen hiri-berroneratze integralaren esparruan gizarte-berrikuntzako eredia bultzatzeko abala ematen dio. Izan ere, esperientzia hori aktibo bat da Estatu osoarentzat, eta etekina atera diezairoke ekimenak beste hiri eta Autonomia-erkidego batzuetan duen eskalagarritasunari, ministerioko hiri-agendako arduradunek onartu duten bezala.

Hiri-berroneratzeari ikuspegi integraletik heltzeko beharra, jasangarritasuna barne hartzen duten alderdi guztiak (sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak) kontuan hartuta, hau ondorioztatzen da: alde batetik, hiri-errealitateari lotutako konplexutasunak ezin dira “eraikuntza jasangarria” edo “energia-eraginkortasuna” bezalako elementuetara mugatu, eta, bestetik, eremu horretako euskal estrategiak nazioarteko agenden barruan kokatu behar dira (bai mundu bai Europa mailan).

Ikuspegi horren helburua hirukoitza da. Alde batetik, EAE lurralde orekatua, kohesionatua eta jasangarria izatea lortu nahi du. Bestetik, lurralde-plangintzan eta hiri-berroneratze integralean eskuratutako ezagutza indartu nahi da, eta Euskadiko Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren (RIS3) garapena ahalbidetu, hiri-berroneratze integralean I+G+B aplikatuz. Azkenik, Euskadi Europako erreferente bihurtu nahi du hiri-berroneratze integralean, herritarren parte-hartzea izaera berritzailearen bektore izan dadin.

Hirirako Eskubidea gauzatzea ahalbidetuko duen hiri-eredurako trantsizioa bultzatzeko Euskadiko Hiri Agendan – BULTZATU 2050ean, zeharka biltzen diren ekintzen parte handia jasotzen duen planteamendua da, pertsonak ekintzaren erdigunean jarriz eta dauden kapital nagusien balioa suspertzen saiatuz: giza kapitala, lurralde-kapitala eta administrazio-kapitala.

Klima-aldaketaren Aurreko Erresilientziaren, Ekosistemen eta Biodibertsitatearen euskal ESEPEa

Habitat naturalaren eta hondamendi naturalen prebentzioaren osagaiaren parte da, eta Euskadin proiektzio eraldatzaile handiena duten proiektuak biltzen ditu, bai hondamendi naturalen aurrean erresilientzia hobetzeari dagokionez, bai ekosistemak eta horien biodibertsitatea kontserbatzeari eta lehengoratzeari dagokionez. Horretarako, beharrezkoa da uraren ziklo integrala, saneamendua eta arazketa kontuan hartzea.

Euskadi Creativa euskal ESEPEa

Digitalizazioaren eta berrikuntzaren osagaiaren parte da, eta erantzun egituratzailea izan nahi du, Euskadiko kultura- eta sormen-industrien (KSI) sarea osatzen duten kultura- eta sormen-enpresen egungo “artxipelagoa” sendotzeko eta zabaltzeko.

Sormena eta kultura ulertzeko eta adierazteko moduen aniztasuna dela eta, bere aberastasunak ekimen egituratzaileak eta lehiakortasuna bultzatzen dutenak behar ditu, teknologia txertatuz, eskaintza eta eskaria baldintzatzen dituen digitalizazioaren munduan barneratzeko.



Ekoberrikuntzaren euskal ESEPEa


Ekonomia zirkularraren osagaiaren parte da, eta paradigma-aldaketa horren erronkei erantzutea du helburu. Horretarako kontuan hartzen ditu ekodiseinua (produktu eta zerbitzu baten ingurumen-inpaktuen (eta kostuen) % 80 diseinu-etapan zehazten dira), “iraunkortasunerako serbitizazioa” (erabiltzeagatik ordaintzera zuzendutako negozio-eredu berriak), konponketa aurreratua eta osagaien eta ekipoen birfabrikazioa edo birmanufaktura (osagaiak eta ekipoa ikuskatzea, diagnostikatzea, garbitzea, konpontzea, muntatzea eta bizitza-amaieran balioztatzea), bai eta xahuketaren prebentzioa, energiaren aurrezpena eta metalen, plastikoen eta eraikuntzako hondakinen edo lurzoru kutsatuen birziklapena ere.

BASQUE MOBILITY euskal ESEPEa

Ekimen hau apustu estrategikoa da euskal industria mugikortasun berri autonomo, jasangarri eta konektatua kokatzeko. Ibilgailuen elektrifikazioa bultzatzeko ekosistema industrialak sortu nahi da, bateriak sortzeko ikerketaren eta garapenaren bidez, eta egokitzapen, bilakaera eta dibertsifikazioaren bidez, ingurune irekietan eta errealitate gertu daudenetan probak egingez eta balioztatuz. Horrela, murriztu egingo litzateke produktu eta zerbitzu berrien garapenaren eta horien hedapenaren artean dagoen gap-a. Helburua Euskadi mugikortasun-sistema eta -zerbitzu berriak balioztatzeko funtsezko lurralde bihurtzea, eta ibilgailuaren funtzio autonomoak dituzten inpaktuak lurraldean ebaluatzea da, pilotuen eta proben bidez.

Digitalizazioaren, mugikortasun konektatuaren, autonomoaren eta seguruaren ikuspegitik BasqueCCAM proiektua izango da gainerakoak koordinatu eta bilduko dituen ekimen nagusia. Gainera, lurralde historiko bakoitzak espezializazio osagarri batekin lagunduko du.

GRAFIKOA. Euskadi Nexten eta Lurraldeko ESEPEen osagaien zerrrenda.





5. Faktorea

Lurraldearen errealitatera, eta, bereziki, euskal enpresa-egituraren errealitatera egokitzen da

SEEPen barruko eremuak egokiak dira euskal produkzio-sarerako eta RIS3 estrategiarako, baina, egia esan, Estatuak abiarazi eta definitutako deialdietan ezarritako oinarriek kanpoan uzten dituzte Europako baldintzak betetzen dituzten proiektu eraldatzaileak dauzkaten ehunka euskal enpresa.

Hori gertatzen da planteamenduak ez dielako zuzenean erantzuten Euskadiko enpresa- eta zientzia-sistema teknologikoaren lehentasun estrategikoei; izan ere, estatuko eta lurraldeaz gaindiko helburuetan zentratzen da, eta bigarren mailan uzten ditu lurralde-lehentasunak, eta horrek lehiakortasuna hobetzeko aukera asko galtzea dakar.

Esate baterako, ibilgailu elektrikoa eta konektatua garatzeko ESEPEaren ekimenek ibilgailu elektrikoak eta bateriak ekoizteko gigafactorien garapenean oinarritzen dute beren planteamenduaren zati handia, eta Euskadiren lehentasun nagusia sistemen eta osagaien fabrikazio-katea eraldatzea da, zientziaren eta teknologiaren euskal sistema barne, elektrifikazioaren, deskarbonizazioaren eta elektronikaren integrazioaren eskakizunetara egokitzeko.

Bestalde, ESEPEak zailtasun burokratiko handiak izaten ari dira funtsak enpresei esleitzeko. Industria-politikaren kudeaketan esperientziarik eza eta ETEekiko urruntasuna dira emaitza horiek azaltzen dituzten arrazoi nagusiak.

Izan ere, enpresek eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainek argi eta garbi erakusten dute euren desengainua eta urruntasuna, ez baitute beren inbertsio-proiektuak bultzatzeko Europako funtsak baliatzeko modua ikusten.

Proposamenaren helburua Europako funtsen erabilera optimizatzea da, deialdietan trantsizio hirukoitza lortzeko baldintza egokienak jasoz, eta, jakina, Europako nahiz SEEPean aurreikusitako kontrol-parametro guztiak betez.



6.

Bermatutako ibilbidea: euskal proposamenaren sendotasuna

Euskadik, arrakastaz ezartzen ari den hazkunde ekonomiko jasagarriko estrategia propioa du, eta industria, balio kate lehiakorak osatzen dituen enpresa produktiboen eta zerbitzuen ekosistema gisa ulertzen dugu.

Ekosistema horrek barne hartzen ditu bai jarduera tradizionalak bai garrantzia hartzen ari diren sektoreetako enpresak, askotariko eta etorkizuneko esparruetan: bio-osasuna, IKTak, kultura, etab.

Bigarren mailan egon ondoren industria-politika agenda publikora itzultzen ari den herrialde garatu gehienetan ez bezala, Euskadik beti bultzatu izan du industrian oinarritutako garapen-estrategia.

Metalen manufaktura eta erreminten eta makineriaren eraikuntza eta erabilera gure "DNA" daude, eta gure oraintsuko historiaren zati handia azaltzen dute. 80ko hamarkadaren hasieran autogobernuaren lehen urratsak eman zirenetik, euskal erakundeek, enprekin batera, politika industrial berezi eta proaktiboa izan zuten, merkatuko indarrei lan egiten uztea gomendatzen zuten adituen jarraibideen aurka.

Euskal erakundeek, enprekin batera, lanari ekin zioten, norabidea galdu zuten sektoreak berregituratzeko eta jarduera berri gero eta aurreratuagoen eta sofistikuagoen oinarriak ezartzeko, gure pertsonen talentuan, gure "egiten jakitearen" kalitatean eta gero eta berrikuntza-potentzial handiagoan oinarrituta.

Horrek guztiak ahalegin eta sakrifizio handia eskatu dio euskal gizarte osoari, eta, gaur egun, gure balio erantsi gordinaren % 24 inguru industria-sektorean sortzen da, eta gure BPGaren % 40 industria-

oinarriko ekosistemaren inguruan egituratzen da, ikuspegi globaletik oso lehiakorak diren manufaktura- eta zerbitzu-enpresa aurreratuekin.

Lankidetzaren publiko-pribatua gure herriaren bereizgarri da, eta haren oinarri sendoek ahalbidetu digute bizi-kalitate altuko gizartea egituratzea, duela urte gutxi urrunetik mirespenez begiratzen genien herrialdeetakoekin pareka daitekeena. Gaur egun, Euskadi erreferentzia da alderdi askotan Europarentzat, eta, era berean, Europako estandarrak ditu erreferentziatzen.


Euskadiko biztanleko BPGa 108ra igo zen 2022an, Erosteko Ahalmenaren Parekotasunean (EAP) neurtuta eta EB 27ko herrialdeentzat 100 balioa erreferentziatzen hartuta; Europako bederatzigarren herrialdeek soilik gainditu zuten Euskadiren maila, eta Espainiak 85eko balioa lortu zuen.

Hauek dira lurraldeko ESEPEaren eskaerari eusten dioten Eusko Jaurlaritzaren estrategietako batzuk.

Industriaren Garapenerako eta Nazioartekotzerako 2021-2024 Plana

Plan honen xedea suspertze ekonomikoa eta nazioarteko jardueraren susperraldia bizkortzea da, krisiaren aurreko mailak gaindituz, izaera industrial nabarmenarekin, enplegua sortuz, eraldaketa digitalak, energia-klimakoa eta demografiko-soziala produkzio-egituraren lehiakortasuna indartzeko aukera gisa onartuz, eta ingurumen-irizpideak politika sektorial guztietan txertatuz, ez baldintzatzaile gisa, lehiarako faktore eta balioa sortzeko aukerako faktore gisa baizik. Planak





pertsonak jartzen ditu eraldaketaren erdigunean, ongizatearen zerbitzura dagoen lehiakortasun-ereduaren protagonista gisa.

Planak helburu estrategiko hauek lehenesten ditu:

1. Industrian eta zerbitzu aurreratuetan BPGaren % 40 gainditzea.
2. Aldiaren amaieran Euskadin BPGaren herena esportatzeko joera lortzea, euskal enpresek atzerrian ezarpenak izateko duten joera handitzea.
3. I+G arloko konbergentzia lortzea Europako batez bestekoarekin, inbertsioarekin eta emaitzekin, eta Euskadi Europako berrikuntza-polo bihurtzea.
4. Enpresa teknologikoen sorrera % 10 handitzea eta Euskadi tokiko industriarekin lankidetzan diharduten nazioarteko startupen ekosistema bultzatzaile gisa kokatzea.
5. Trantsizio energetiko-klimatiko eta teknologiko-digitaletan erlazionatutako eremuetan jarduera berriak sortzea, beste trantsizio demografiko-sozialaren inguruko arlo berrien aldeko apustua eginez, besteak beste.

Dena den, produkzio-sektoreen araberako alderdi bereizgarriak dituen industria-politika horren esparruan badira sektore guztientzat komunak diren zeharkako zenbait jarduera, eta kontuan hartu beharrekoak dira. Izan ere, edozein herriren gaitasun industrialak bere produkzio-ekipoen maila teknologikoak zehazten du erabat, eta, hori dela eta, beharrezkoa da gure industria hornitzea, industria-sektore osoaren etorkizuna bermatzeko.

Horretarako, SEM funtsak Estatu mailan balio biderkatzaile handiko Makineriaren eta produkzio-ekipamenduaren "Renove Plana" abiarazteko erabil daitezke.

Digitalizazioan eta automatizazioan oinarritutako industria-prozesuen berrikuntzak ere produktibitate eta lehiakortasun handiagoko bektoreak dira. Horretarako, garrantzitsua litzateke ETEetan digitalizazioa eta automatizazioa bultzatzeko programa abiaraztea. Alde batetik, plug and play digitalizazio-tresnak era masiboan ezarriz (merkatuan gero eta soluzio gehiago dago) digitalizazioa sustatzeak, hobeto konektatuta egongo liratekeen industria-enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzea ahalbidetuko luke, eskaintzak egitea, produkzioaren plangintza, mantentze-lanen kontrola, prozesuen simulazioa eta hobekuntza, akatsen prebentzioa, entregean hobekuntza eta abar hobetuz. Beste alde batetik, automobilgintza bezalako sektoreetan automatizazioa, bereziki robotizazioa, nagusiki ezarri ondoren, gainerako sektoreetara zabaldu behar da, haien produktibitatea soluzio malgu eta ekonomiaren ikuspegitik bideragarrien bidez bultzatzeko, baita ekoizpen ez seriatuak edo ez oso handiak dituzten ETEetan ere.

Prestakuntza ere faktore kritikoa da lehiakortasunerako, eta arlo horretan Industriaren eraldaketarako gaitasunak sortzeko eta transferitzeko campusa sortzea garrantzi handiko ekimena izango litzateke. Makina Erremintaren Institutuaren (IMH) presentzia ekimen hori garatzeko aukera da, ekipoetan, espazioetan eta pertsonetan inbertsioa bultzatuz.





Basque Industry 4.0 estrategia

Basque Industry 4.0k Euskadi oinarri industrialeko ekonomia gisa duen prosizioamendua indartzea bilatzen du, ezagutzan fabrikazio intentsiboa bultzatuz. Bost helburu estrategiko ditu:

1. Euskal enpresei ezagutzan intentsiboagoak diren eta balio erantsi handiagoa duten fabrikazio-jardueretarantz aurrera egiten laguntzea,
2. Diziplina aniztasuna eta konbergentzia teknologikoa modu egituratuan bultzatzea, best in class fabrikazio-gaitasunak eta -soluzioak garatzeko, dauden baliabideak optimizatuz,
3. Tokiko eta nazioarteko balio-kateak integratzea, fabrikazio aurreratuko erronkei erantzuteko, sektore bakoitzaren eta bertako enpresen gaitasun berezien baturatik abiatuta,
4. Fabrikazio aurreratuko I+G+b arloko emaitzen industrializazioa bizkortuko duten lankidetzak eta laguntza-formulak bultzatzea, eta,
5. Fabrikazio aurreratuarekin erlazionatutako teknologietan eta kudeaketa-sistemetan hezkuntza eta prestakuntza praktikoa bultzatzea, ekoizpenetik gertu egonda.

2030eko Enpleguaren Euskal Estrategia eta 2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoa

La Estrategia Vasca de Empleo 2030, definirá las claves estratégicas y los proyectos tractores, que posibiliten la consecución de un mercado de trabajo de calidad e inclusivo, que se adapta al sistema productivo, incidiendo especialmente en las políticas activas de empleo y teniendo como eje transversal la igualdad de oportunidades para todas las personas. El Plan Estratégico de Empleo 2021-2024, concreta las actuaciones y los actores institucionales, sociales y económicos, necesarios para alcanzar dicho objetivo.

Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2021- 2024 Plan Estrategikoa

Plan horrek energiaren eta klima aldaketaren arloko jarduketan 2021-2024 aldirako jarduera-esparrua ezartzen du, Europar Batasunak ezarritako helburuetan (berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, energia-eraginkortasuna hobetzea eta energia berriztagarrien erabilera handitzea) aurrera egiten jarraitzeko, sektoreen eta lurraldearen egokitzeko gaitasuna indartuz, gerta daitezkeen teknologia- eta industria-garapenerako aukerak aprobetxatuz eta, hori guztia, gizarte-, enpresa- eta teknologia-izaerako bidezko trantsizio testuinguruan. Hauek dira oinarritzko helburuak: berotegi-efektuko gasen emisioa % 30 murriztea, energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren % 20 izatea lortzea eta euskal lurraldeak klima-aldaketaren aurrean erresilientzia izango duela ziurtatzea. Horri esker, jarduera ekonomikoa hobetzen, I+Gko inbertsioa eta enpresen lehiakortasuna areagotzen eta enplegua sortzen lagunduko da.

Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa

Balio kate luzeago, jasangarriago eta tokikoagoetan oinarritutako euskal bioekonomia sortzeari lotutako ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko aukera eta erronken ikuspegi partekatua eskainitzea bilatzen du. Era berean, aukera garrantzitsua da Euskadik lehiakortasuna eta European hazkunde jasangarria sustatzeko duen eginkizuna hobetzeko.

Klima Aldaketaren aurkako Estrategia 2050 - Klima2050

Estrategia horren helburua 2030ean berotegi-efektuko gasen isuriak gutxienez % 40 murriztea da (helburu hori eguneratu egingo da EBK hartutako konpromisoaren ondoren), eta % 80 2050ean, 2005. urtearekiko, eta euskal lurraldeak klima-aldaketaren aurrean erresilientzia izango duela ziurtatzea. Gainera, 2050. urtean azken kontsumoaren % 40 energia berriztagarria izatea du helburu. Ekonomia lehiakorra,



berritzailea, karbono gutxikoa eta klima-aldaketaren inpaktuetara egokitua sortzea du helburu.

Eraldaketa Digitalerako Estrategia

Euskadi 2025

EDE Euskadi 2025 hiru dimentsiotan egituratzen da, eta Estrategia indarrean dagoen bitartean Eusko Jaurlaritzak bere fokua eta lehentasunak zein elementuren gainean jarriko dituen zehaztea ahalbidetzen du. Dimentsio horiek hauek dira: palanka teknologikoak (5G konektibitatea, Adimen Artifiziala, Zibersegurtasuna...), laguntza-gaitzaileak (Gaitasun Digitalak eta Talentua, I+G, Ekintzailtza...) eta aplikazio-eremuak (ETEak, industria adimenduna, energia...).

PCTI 2030

Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren helburua, Euskadi 2030ean berrikuntzan aurreratuen dauden Europako lurraldeen artean egotea da, bizi-mailari eta enpleguari dagokionez kalitate handia lortuz. Beraz, zientzia, teknologia eta berrikuntza, aurrez aurre ditugun erronka nagusiak konpontzeko eta Euskadin garapen ekonomiko eta sozial orekatua eta jasangarria bermatzeko tresnak dira. Hiru zutabe estrategiko ditu: bikaintasun zientifikoa; lidergo teknologiko industrial eta berrikuntza irekia, eta elementu nagusi bat du: talentua.

Estrategia IKUR

IKUR 2030 Estrategia 2020. urtearen amaieran sortu zen, Europako Batzordearen Flagship Initiatives delakoan erreferentziarekin, Euskadiko errealitatera egokituta, gure lurraldeko apustu zientifikoak hauekin identifikatuz eta garatuz:

- Bikaintasuneko ikerketa- eta trebakuntza-programak.
- Punta-puntako azpiegituren eta ekipamenduen sorkuntza eta kudeaketa.
- Komunitate zientifiko, teknologiko eta industrialaren egituraketa.

- Baliabide espezifikoaren hornikuntza (eta horiek bultzatzeko dauden zenbait baliabideren orientazioa).

IKUR strategiaren balio erantsia hauekin erlazionatuta dago:

- Baliabide-bolumen esanguratsuen kontzentrazioa esparru zientifikoetan: zientzia arloko ekimen handiak.
- Espero diren emaitzekiko anbizioa...
- Eta erritmoak azkartzeko gaitasuna (epeak laburtzea), emaitzak lortzeko.

Horretarako, IKURek baliabide eta inbertsio espezifikoak jartzen ditu, dauden laguntza-tresnak eskuratzeko gain, garapenerako epeak laburtzeko eta benetan egiturazkoa den aurrerapausoa emateko.

IKUR Estrategiak Euskadi Bikaintasuneko Zientziaren nazioarteko gune gisa kokatzeko apustu egiten du, abangoardiako proiektuetan parte hartuz eta gizartean eta ekonomian eragina izango duten emaitzak lortuz. Horretarako, 4 eremu espezifiko lehenesten ditu: Neurobiozientziak, Teknologia Kuantikoak, Neutronika eta HPC&IA, lehentasunezko RIS3 eremuekin lerrokatutako eremuak, hain zuzen ere. Gainera, abiapuntuari dagokionez Euskadin errealitate desberdina duten eremuak diren arren, bi ezaugarri komun dituzte: estrategikoak dira gure gizartearen etorkizunari begira, eta horietako bakoitzari dagokionez gaitasun nabarmenak ditugu nitxo zehatzetan.

Xede eta eremuen lehentasun horrekin, estrategiak helburu hauek planteatzen ditu: talentua erakartzea, abangoardiako azpiegituren garapena bultzatzea, Euskadi zientzia arloan nazioartean kokatzea eta gure herrian egiten den ikerketa bikainaren gainean trakzio-efektua sortzea.

Horretarako, IKUR estrategiak funtsezko bi printzipio ditu oinarri: Euskadin dauden gaitasun bikainak mobilizatzea eta eragileen arteko lankidetzaren dinamikak sortzea. Horrela, lankidetzaren bidez, IKUR bikaintasuna indartzera, inpaktudun balio-kateak bultzatzera eta lehentasunezko eremuetan nazioarteko posizionamendu indartsua sendotzera bideratuta dago.



7.

2020-2023: Esperientzia frogatua

Euskadik rol proaktiboa jokatu du Next Generation EU funtsen jomuga eta iritsiera optimizatzeko. Next Generation ekimenaren hasierako etapetatik, Eusko Jaurlaritzak ondo baino hobeto zekien ekimenak zein garrantzia eta potentzial zituen, ez bakarrik krisitik ateratzeko, baita gizarte- eta produkzio-sarearen eraldaketa bizkortzeko ere.

Horregatik, jarrera proaktiboa hartu zuen, eta berehala jarri zituen mahai gainean Euskadik bizkortu behar zituen eraldaketa-proiektuak, lurralde erresilienteagoa, erakargarriagoa eta lehiakorragoa izateko. Euskadi Nexten lehen edizioa 2020ko abenduan aurkeztu zen, Espainiako SEEPa oraindik onartu gabe zegoenean.

Euskadi Next ekimenak Eusko Jaurlaritzaren, hiru Foru-aldundien eta EAEko hiru hiriburuetako udalen erakunde arteko interesari erantzuten dio. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientziarako Euskal Programa izateko asmoarekin sortu zen, eta Herrialde mailako inbertsio estrategikoko proiektuen aukeraketa zehatza jasotzen zuen.

2021eko maiatzean Euskadi Next eguneratu egin zen, eraldaketaren eta erresilientziaren aldeko apustua egiten zuen bigarren edizioarekin, susperraldi prozesua aurrerapen gisa leherrarazteko gakoa zela sinetsita.

Euskadi Next ekimenaren edizio berri horretan, Estatuko ESEPEak aipatzen ziren, eta euskal enpresek horietan era aktiboan parte hartzearen garrantzia, baina, era berean, lehen aldiz sartu zen izaera estrategiko eraldatzaileari dagokionez Estatuko baldintzak betetzen zituzten lurraldeetako ESEPEen figura. Aldea zen azken horiek lurraldeko espezializazio adimenduneko estrategia erantzuten zirela. Euskadiren kasuan, RIS3 strategiari.

Espainiako Gobernuak lurraldeetako ESEPEei arretarik eman ez izanaren eta estatuko ESEPEen ezarpena atzeratu izanaren ondorioz, euskal administrazioek (Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru-aldundiek) ekimenari ekin zioten eta funts endogenoekin Euskadiko 2022-2024 Inbertsio Estrategikoen Plana abian jarri zuten.

Planak 528M€-ko aurrekontua du, eta Euskadi Next Programan sartuta egon arren Europako SEM finantzaketarik jaso ez duten proiektuak finantzatzera bideratu da. Proiektuak funts propioekin bultzatzen ziren, euskal ekonomia- eta gizarte-egituraren eraldaketa ezin baitzen egon SEM funtsen kudeaketaren eta erabakien eta funts horiek egitura sozial eta produktiboetara iristeko orduan gertatzen ari ziren atzerapenen mende.

